

# Udazken Kulturala

Azaroaren 23tik  
Abenduaren 4ra



# AZAROA

23

- HHko ikasleak udazkeneko elementuak erabiliz, **HORMAIRUDI ERRALDOIA** sortzen hasiko dira Ikastolako patioan

24

- 9:30ean, **XABIER LIZASO** pianojolearen KONTZERTU DIDAKTIKOA LH-ko 3, 4 eta 6. mailako ikasleentzat.
- 5. mailako ikasleak Tolosako TOPIC-era joango dira bertan **TXOTXONGILO emanaldia** ikustera.

25

## EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA

- Arratsaldean, Pake Leku elkarteko kideekin batera **IPUIN KONTALARI saioa** LH 1 eta 2. mailako ikasleentzat.
- 10:15etik aurrera **GRAFFITIGINTZA TAILERRA** DBH 4B gelako ikasleentzat Hiba Garairekin.
- 14:30ean, LH 5. mailako ikasleak **MARKEL IRIZAR** txirrundulariarekin solasaldia izango dute.



26

- Goiz guztian zehar Batxilergoko 2. mailako ikasleak **KALE ARTEA**n arituko dira Garaion Elkartekoekin.
- 10:15etik aurrera **GRAFFITIGINTZA TAILERRA** DBH 4A gelako ikasleentzat Hiba Garairekin.
- 10:15etik aurrera DBH 3. mailako ikasleak **BIZIKLETA TAILERRA** izango dute Baibike elkartekoekin (*Ingeleseko departamentuak antolatuta*).

27

- Goizean, **ANTZINAKO JOLASAK** erakutsiko dizkiete Pake Leku elkartekoek LH 3. mailako ikasleei.
- 14:30ean, LH 6. mailako ikasleek "**Gizakiaren sexualitatea eta ugalketa**", Arantzazu Inzaren eskutik.

## HERRITAR GUZTIENTZAT

- 16:45etik aurrera, **KULKI**ren eskutik **EUSKAL JOLASAK** plazan.
- 19:30ean **AROZENATARREN kontzertua** Santa Ana antzokian.



Arozena anaiak dira Aitor (txistularia), Urko (atabalaria) eta Xanet (kitarrajole eta txistularia), "lau teilatu" kanta ezaguna nahiz Europe talde suediarren kantuak txistu doinuarekin jotzeko trebezia berezia dutenak.

# 28

- **FAIR SATURDAY** arte eta kulturaren bitartez mundua eraldatzeko eguna da. Txantxiku Ikastolak, Arizmendi Ikastolarekin batera mundu mailan ospatzen den ekimen honekin bat egingo du. *Ikus egitarau zehatza azken orrialdean.*

# 29

- **KONDAIRAZ KONDAIRA.** LH 4.mailako ikasle eta gurasoentzako irteera. Arizmendi eta Aranzadi ikastolekin batera antolatutako ekimena bailarako txokoak ezagutzeko. Oraingo honetan Oñatin elkartuko gara.

## ABENDUA

# 1

- Arratsaldean, **OIHANA KORTAZAR** mendi lasterkariarekin **solasaldia** izango dute DBH 1. mailako ikasleek.



# 2

- Arratsaldean, **GAZTAINA JANA** egingo dute HH-ko ikasleak elkarrekin.

# 3

## EUSKARAREN EGUNA



- Egun guztian zehar ekintza desberdinak izango dira Txantxiku Ikastolako ikasle guztientzat: **Argitxoren etorrera, ipuin kontalariak, TTAK** Euskara taldeak antolatutako **jaialdia**, ...
- Arratsaldean, kontzejupean Hezkuntza Mahaiak antolatutako ekintzak izango dira **herritar guztientzat**

# 4

- DBH 4.mailako ikasleak **DURANGOKO AZOKA**ra joango dira.
- Goizean, Batxilergo 1. mailako ikasleak **LOREAK filmea** ikusiko dute eta ondoren **AITOR ARREGI gidolari eta ekoizlearekin solasaldia** izango dute.
- Egun osoan zehar, LH 5 eta 6. mailako ikasleek **PHOTOWALK** ekimena burutuko dute. **Herriko txoko kuttunak argazkietan bildu**, hauen aurkezpena egin eta erakusketa antolatuko da. *(Ingeleseko departamentuak antolatuta).*





# FAIR SATURDAY

## Debagoieneko ikastolak mundu hobe baten alde

12:30ean **HERRIXA KANTUAN** ekimenaren saio berri bat izango dugu.

*Ikasleek egindako oroigarria borondate truke eskuratzeko aukera egongo da.*



19:30etatik aurrera, **JAIALDI BEREZIA** plazan. Parte hartzaileak ondorengoak izango dira:

- o Txantxiku Ikastolako ikasle **bertsolariak**
- o Txantxiku Ikastolako **txistulariak**
- o Txantxiku Ikastolako **abesbatza**
- o **GAITZERDI** taldearekin erromeria

*Emanaldiak irauten duen bitartean, taberna muntatuko da eta goizean borondate truke banatu diren oroigarriak eskuratzeko aukera ere egongo da.*



Egun honetan bildutako diru guztia  
**MUNDUKIDE GKE-a** laguntzeko  
bideratuko da